



GARCÍA RIVERO MAISUAREN ESKOLAKO AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK HOBETZEKO PROPOSAMENA

Azken 30 urteetan egindako ikerketa zientifikoek erakutsi digutenez, giza garapeneko garairik garrantzitsuenak da jaiotzatik zortzi urte bete artekoa. Urte horietan zehar garatutako gaitasun kognitiboa, ongizate emozionala, gaitasun soziala zein osasun fisiko eta mentala dira arrakastarako oinarri sendoa, helduaroan ere bai.

UNICEF

AURKIBIDEA

1.SARRERA.

2.ESKOLA ETA BERE ESPAZIO IREKI URRIAK.

3. AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK, PROPOSAMENAK.

3.1 EMILIO CAMPUZANO LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUAREN AIRE ZABALEKO ESPAZIOA.

3.2 EUSKOTRENEN AIRE ZABALEKO GUNEA: ZUZENDARIEN APARKALEKUA ETA HALL-A.

3.2.1. ATZEKO PATIOA HANDITZEKO PROPOSAMENA, TRANBIAREN ESKOLA ONDOKO PASABIDEA KENDUZ.

3.2.2. TRANBIAREN TRAZADURA ALDATU GABE ATZEKO PATIOA HANDITZEKO PROPOSAMENA.

3.2.3 GELTOKIKO HALL-A HANDITZEKO PROPOSAMENA.

4. ONDORIOA

1. SARRERA

Maestro García Rivero HLHI-ko komunitateak "Hezkuntza-kalitatea hobetzeko aukerak" izeneko txostena egin zuen 2019an, eta bertan identifikatu, aztertu eta deskribatu egiten zituen ikasleentzako espazioen gabezi eta beharrak, baita eskola-ingurunearen mugikortasun-arazoa eta sarbideen arriskua ere.

Espazioak hobetzeko aurkeztutako eskari eta proposamenetatik, ikasleek auzoko kantxak gimnasia egiteko soilik erabiltzea lortu da (COVIDek premia hori areagotu zuen, dagoen espazioan burbuila taldeak sortzea ezinezkoa baitzen).

Dokumentu hau txosten horren osagarria da, **eskolako aire zabaleko jolastokirik/gunerik ezari erantzun bat emateko.**

AEBko Pediatria Akademiak 2013tik bere gomendioetan azpimarratu zuen **aisialdia funtsezkoa dela haurren hazkunderako eta garapenerako, bai eta haien betebeharrak akademikoetarako ere.** Zenbait azterlanek ondorioztatu dutenez, haurrek gutxienez 20 minutuko atsedena dutenean, ikasleek kontzentrazioan eta arretan irabazten dute, eta produktiboagoak dira ikasgelan.

Aire zabaleko espazioak funtsezkoak dira, eta horien kantitatea zein kalitatea erabakigarriak. Eskolako jolastoki batek adin bakoitzaren beharrei erantzun behar die, **eta jarduera kardiobaskularrak, fisikoak, interakzio sozialak eta abar ahalbidetzen dituzten eremu bereziak izan behar ditu.**

Espazio horiek ez edukitzearen ageriko ondorioak eskolan agertzen dira, **gatazkak, erorketak, kolpeak, obesitatea, etab. Halaber, agerian ez dauden beste ondorio batzuk agertzen dira; hala nola estresa, antsietatea, harmoniarik eza eta osasun txarra.**

Bestalde, eskola inguruko **trafikoa eta kutsadura** eguneroko arriskua dira oinezkoen segurtasunerako. **Eragin kaltegarria** dute gure seme-alabengan eta arnas infekzioak izateko arriskua areagotzen die (asma, otitisa, etab.). Bartzelonako **ikerketak** batek (Mireia Gascon, ingurumen-epidemiologoa), kutsadurarekiko arrisku handiagoa eta txikiagoa duten **37 eskoletako 3.000 ikasle aztertu zituzten. Kutsadurarekiko esposizio handiagoa zuten ikasleek neurogarapenean eragin negatiboa zegoela berretsi zuen ikerketak, eta ikasle horiek kutsadurarik gabeko eskoletakoek baino puntu okerragoak lortzen zituztela lan-memorian.**

Alabaina haurren osasun integralean **eragin negatibo guztiak itzuli daitezke;** eskolako patiorako espazioak handitzen badira eta kutsaduraren esposizioa murrizten bada, **horri lotutako gaixotasunen prebalentzia murriztu daiteke.**


Ikastetxe publikoak eta haren inguruneak espazio onak izan behar dute haurren garapen integrala sustatzeko, bai eta haien osasuna, hezkidetza eta bizikidetza babestu eta sustatzeko ere.

2.ESKOLA ETA BERE ESPAZIO IREKI URRIAK


goeko hamarkadaren amaieran, D eredua eskolan ezartzearekin batera, etenik izan ez duen eskaria handitu zen, **inguruko haurrek eskola publikoan ikas zezaten.**

Une horretan, eskola-komunitateak espazio faltaren lehen eskaria antolatu zuen, eta, hainbat urte eta negoziazioaren ondoren, eskola hobetzeko obrak (jangela eta gimnasioa) zein atzeko patioa onartzea lortu zuen.

Eraikinaren barrualdeko obrak egin ziren, baina ez ikasle txikienen jolaserako erabiliko zen atzeko patioa; horren ordez, Euskotreneko 16 zuzendarientzako aparkalekua utzi zen. Harik eta 2005. urtean, eskola-komunitateak hainbat mobilizazio egin, eta eraiki zen arte. Hori bai, agindutako neurriekin ez, eta, beraz, atzeko patioa adostutakoa baino txikiagoa da egun.



Eskolako kokapenaren planoa



Eskolako beheko solairuaren eta patioen planoa

Gaur egun, **eskolak 459 haur** ditu haur hezkuntzaren eta lehen hezkuntzaren artean, 51 maisu-maistra + 4 hezitzaileen tutoretzapean. **Aire zabaleko bi patio daude, 850 eta 840 m2 ingurukoa bakoitza.** Horietako **bat ere ez dago estalita.** Aurreko patioa zementuzkoa da, eta errepidea zein trafikoa 2 metrora daude. Atzeko patioa txikieneztat da eta zoru berezia du, pasealeku batekin itsasadarratik banatzeko.

Eskolan, ikasle bakoitzeko **jolastokiaren ratioa 3,69 metro eskasekoa da haur bakoitzeko**, ondorioz, ezinbesteko gutxienean dago. Edonola ere, Gasteizko Ingurumen Ikasketetarako Zentroak (Gasteizko Udalaren Udal Erakundea,) hiri horretako eskolak aztertu ondoren, txosten batean ondorioztatu du Gasteizko eskoletako patioen % 72k 10 metro baino gehiago dituela erabiltzaile bakoitzeko.

Bilboko trafikoa ez da murriztu, joan-etorriak hazi egin dira 2021/12/21eko albisteen arabera. Atxuriko eskola hiriko irteera/sarreretako batean dago, eta **aurreko patioan hiriko bero-uharte bat sortzen da: CO2 botatzen duen trafiko-igarobide etengabeak talka egiten du eskolako eraikinaren kontra**, aire kutsatua patioan itxi egiten da, eta, ondorioz, tenperatura igo egiten da. Horrek eragin kaltegarriak ditu ikasleen osasunean, 2 urtetik 12ra bitartean.

Espazio horiek ez dira nahikoak, ez diete ikasleen garapen-beharrei erantzuten ez eta helburu pedagogikoei ere.



Aurreko patioa



Atzeko patioa

Azken urteotan, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiak, eta zeatzago, burbuilak bereizitako gunek sortzeko beharrak eraginda, agerian geratu da ez dagoela espaziorik, ezta aire zabaleko tokirik ere.

Bi patioak, gehienetan, adin desberdineko hainbat ikasturtek partekatzen dituzte, eta espazioa bi zatitan banatu behar izaten dute konoekin, nahastu ez daitezen.



Atzeko patioa banatzeko marra gorria

Adibidez, 2. mailako kurtso oso bat, 46 haurrez osatutako bi klase, jolastu, imajinatu, korrika eta abar egiteko patio erdia, besterik ez dute; 3 urtekoek, berriz, beste erdia.

Euria egiten duen egunetan, patio estalirik ez dagoenez, ikasleek eskola barruan egon behar dute eskola-orduetan eta jolas-orduetan, eta aisialdirako guneak eta jolasak antolatu behar dituzte horretarako ez diren lekuetan, hala nola korridoreetan, hallean eta gela osagarrietan.



Eskolako pasalekuak



Erabilera anitzeko gela

LEHEN HEZKUNTZA:

Gela Egonkorra: hallean

2. Zikloko pasabidea: 5. maila

3. zikloko pasalekua: 6. maila

Hallean: 3. eta 4. mailak

Lehengo solairuan: 2. maila






Ludoteka: 1go maila

HAUR HEZKUNTZA

Halla: 4 eta 5 urte

3. urtekoen markoan: 3 HH

Psicomotrizitatea y 2 urteko gelan: 2 HH



Euria egiten duenean goizeko jolas-garaian ikasleak kokatzeko planoak

3. AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ZABALTZEKO PROPOSAMENAK.


Eskolako ingurune hurbilak aukerarik onenak eskaintzen ditu eskolaren aipatu premia zein arazoak konpontzeko, eta aire zabaleko espazioen/patioen gabezia eta kalitatea bermatzeko:

1. Eskola parean Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu bat dago. Atzealdean, espazio ireki handi bat dago, erabili gabe.
2. Atxuriko geltokia, behin itxita, eskolaren ondo-ondoan dagoena, leku egokia da eskola zein auzoko beharrei zerbitzua emateko.
3. Atxuriko kiroldegiaren ondoan, Atxuriko parkearen behealdean, espazio huts handia dago, eta aparteko aukerak eskaintzen ditu.

Jarraian, hiru proposamen zehatz egin dira 1. eta 2. puntuetan oinarrituta. Eskola-komunitateak uste du proposamen horiek egingarriak eta bideragarriak direla hezkuntza-kalitate publikoa hobetzeko, aire zabaleko espazioak handituz:

- **Aire zabaleko espazioa Emilio Campuzano LHIKren atzealdean.** Lehen, eskolako ikasleek erabiltzen zuten eremu hori, eta azken urteetan degradatu egin da mantentze faltagatik, eta LHIKko ikasleek ez dute erabiltzen.

- Euskotrenek eskolaren ondoan duen aire zabaleko espazioa; **Euskotreneko zuzendarien aparkaleku pribatu** eskusiboa, eta **geltokiko halleko espazioa.**



Eskolako jolastokia hobetzeko hurbileko espazioak

3.1 EMILIO CAMPUZANO LHIKREN AIRE ZABALEKO ESPAZIOA.

Atxuri kalearen beste aldean, eskolaren altuera berean, Emilio Campuzano LHIKa dago. Zentro horrek espazio libre bat du eraikinaren atzealdean, oso zabala, eraikinetik bertatik Zabaldibe kaleraino hedatzen dena, kota gainditzen duten hainbat plataformaz osatua. Eremuak landaretza, zuhaitz eta plataforma berde ugari ditu.

Gaur egun abandonatuta eta degradatuta dago, ulertezina Bilboko eremu honetan dagoen espazio publiko zein berdegune eza ezagututa, eta bereziki, proposamen honetan azaldu dugun bezala, Maestro García Rivero eskolak jasaten duen espazio librearen falta handia.

LHIK Emilio Campuzano **Erabiltzen ez den espazio libre publikoa**



Atxuriko eskola. LHHI Garcia Rivero

Espazio honek eskolako ikasleek erabiltzeko aukera handiak eskaintzen ditu, hurbiltasunagatik eta bertan ezar daitezkeen erabilerengatik. Plataforma txiki bat du kantxa edo espazio gogor gisa, zenbait plataforma berde belarrar eta lurrarekin, landarediaren inguruko bankuak eta zuhaitz handiak.

Jarraian, argazki batzuk erakutsiko ditugu, eta zenbait aukera proposatu. **Inbertsio apurrarekin, espazioa berreskuratuko litzateke, eta aire zabaleko eskola-jarduera eta patioak zein horien kalitatea handituko litzateke: plataforma berdeak eta baratzeak, kantxa estalia eta pilotalekua berreskuratzea.**



Goiko argazkia Emilio Campuzano **LHIKren** atzeko espazioaren panoramika orokorra da. Bertan, eremuaren potentziala ikusten da, **landaredi-kalitate oso altuarekin**, plataforma berdeak lehen hezkuntzako eskola baterako oso **beharrezkoak** diren erabilerak inplementatzeko, hala nola naturarekiko harremana.



Eskuineko irudiak plataforma berdeetako bat erakusten du, **kalitate oneko belardiarekin eta lotutako egonlekuekin** (bankuak). Eskolako baratzea kokatzeko eta egiteko lekua. Kalitate handiko egonaldi espazio gisa ere balio du.



Bi argazki horietan **beste plataforma bat dago ikusgai**, oraingoan hormigoizko akaberarekin, era guztietako **jokoetarako kantxa txiki gisa funtzionatzeko prestatua**. Harmailak ere baditu alde batean, espazioak erabilera osagarri gehiago izan ditzan, hala nola antzokiak/emanaldiak.

Espazio hori egokia da estalki arin bat jartzeko **eta patio estali gisa funtzionatzeko** (lehen deskribatu den bezala, eskolak ez du patio estalirik).





Panoramika horrek, aldameneko eraikuntzako igogailutik ikusita, dagoen espazioaren kantitatearen berri ematen du, nahiz eta, hain zuzen, higiezin-sustapen horrek eragin zuen leku hori erabiltzeari uztea eta berehala degradatzea.

Bestalde, **eskolako ikasleek frontoiarekin lotutako eskolaz kanpoko jarduerak egiteko erabili zuten LHIK-ko frontoia 2016. urtera arte.** Etxebizitza-eraikin berriaren obrek eta igogailu publikoa eraikitzeke baliatutako garabiak pilotalekua pitzatu zuten. Obrak egin ondoren, frontoia kendu eta auzoa inguruko pilotaleku bakarra gabe gelditu zen.





com
Olar
M
A
B
M
V
Z
C
e
e



Frontoia desagertu aurreko ikasleen argazkiak.

Azkenik, aipatu behar da eremu horrek LHIKren eraikinerako sarbide bereizia duela, eta, beraz, funtzionamendu hori ez litzatekeela aitzakia izango, espazioa bereizita kudea baitaiteke.

Sarrera berezi hori Santos Juanes plazan bertan dago, LHIKren sarreraren ondoan, eraikinaren sarrera nagusiaren ezkerraldean.



LHIKren espazio irekiaren ondorengo argazkiek, **2011 eta 2015 bitartekoak**, espazioa nola zegoen eta eskolako ikasleek nola erabiltzen zuten erakusten dute.



Horregatik guztiagatik, **beharrezkoa da Maestro García Rivero eskola publikora joaten diren haurren bizi-kalitatea hobetuko duen espazio publiko erabilgarri bat berriro martxan jartzea.**

3.2 EUSKOTRENEN AIRE ZABALEKO GUNEA: ZUZENDARIEN APARKALEKUA ETA HALLA.

Bilboko HAPOren Aurrerapenaren arabera, geltokitik trenak kendu eta tranbia bakarrik erabili ondoren, trenbideak ibiltoki bihurtuko dira, eta Kainuen pasealekuari lotuko zaizkio.

HAPOren behin-behineko onarpenaren arabera, mugikortasun-sistemen planoak adierazten du tranbiaren gurelekua, gaur egun eskolaren ondoan dagoena, Euskotreneko langileen aparkalekuan kokatuko dela.



Bilboko HAPOren Aurrerakinean bildutako irudiak.




Mugikortasun Sistemen Planoa, Behin-behineko Onarpena Bilboko HAPO 2021.

HAPOren berehalako onarpena dela eta, eta eskola-ingurunean egingo diren aldaketak ikusita, Euskotreneko zuzendariak 20 ibilgailutarako aparkalekua erabiltzea proposatzen da, bai eta geltokiko halla ere, 459 haurrek jolastokia izan dezaten.



Atxuriko eskolako komunitatea



20 ibilgailu sartzeko zuzendarien aparkalekua

Eskolako atzeko patiotik aire zabaleko espazioa zabaltzea haur eta lehen hezkuntzako ikasleentzat (arriskuak kentzearekin eta eremua lasaitzearekin batera) hainbat proposamenen bidez egiten da:

- Atzeko patioa handitzeko proposamena, tranbiaren eskola ondotik kenduta.
- Tranbiaren trazadura aldatu gabe atzeko patioa handitzeko proposamena.
- Geltokiko Halla handitzeko proposamena.

3.2.1. ATZEKO PATIOA HANDITZEKO PROPOSAMENA, TRANBIA ESKOLA ONDOKO PASABIDETIK KENDUTA

Lokomotorak egindako proposamena jaso da, non **tranbiaren trazadura aldatu eta eskola ondotik pasatzeari utzita**, atzeko patioa handitzea adierazten den. Tranbia Atxuri kalera HAPOn aurkeztutako geraleku berritik irtengo da.



Atxuri kaleko tranbiaren eskola handitzeko eta trazadura berria egiteko proposamena

Tranbiaren trazadura aldatuta, erraza da eta aukera paregabea da Euskotreneko zuzendarien aparkalekua eskolarako jolastoki bihurtzeko eta egungoarekin jarraitzeko:

1. **Atzeko patioa handitzea**, bere garaian erakundeek eskola-komunitateari neurri handiagoz onartu eta aurkeztu ziotena. Itsasadarreko pasabide publikoa mantenduko da, eta atzeko patioa zabalduko da, itsasadarretik gertu baimendutako elementu eta lurzoruekin.

Gainera, atzeko patioa zabalduz, **estalitako patio** baten falta konpon daiteke.



Patio estalira bideratutako espazioa

2. **Tranbia eskola ondotik pasatzeak dakarren arriskua ezabatzea.** Egunero ikasle txikienak (2, 3 eta 4 urteko ikasturteak) eraikin nagusitik atzeko patiora joateko irteera/sarrera gune garrantzitsua da.




Tranbiaren bide ondoko atzeko patioko sarrera/irteerako ateak.

Eskolako atetik (eskuineko atea, argazkia) 3 urteko 23 haur ateratzen dira/sartzen dira aldi berean atzeko patiora (ezkerreko atea, argazkia).

3. Hiriko trafikoaren sarrera edo irteera bakarrik uzteko eta tranbia Atxuri kaletik igarotzeko autoen errei bat gutxienez kentzeak ikasleek aurreko patioan **egunero jasaten duten kutsadura gutxituko luke**, ibilgailuak etengabe pasatzean. Bestalde, **ibilgailuen zirkulazioa baretuko litzateke** eta oinezkoak gurutzatzea seguruagoa izango litzateke.

3.2.2. TRANBIAREN TRAZADURA ALDATU GABE ATZEKO PATIOA HANDITZEKO PROPOSAMENA.

Tranbiaren eskola ondoko pasabidea (3.2.1) kenduta atzeko patioa handitzeko proposamena aukera erreal eta ezin hobea da ikasleentzat eta haien ingurune hurbilarentzat espazioak hobetzeko, are gehiago, proposamen horrek (3.2.2.) aire zabaleko espazioen beharra baino ez duela hobetzen jakinda.



Patioa eta eremu estalia handitzeko proposamena

Patio estalira eskolatik Euskotrenek gaur egun duen atetik sartuko litzateke. **Patio berriak 700m² izango lituzke, eta estalitako eremuak 425m².** Ikasleak tranbiatik babesteko, egurrezko hesi bat eraikiko litzateke, eta estalkia ere egurrezko egitura bat izango litzateke.

Etorkizuneko HAPOk adierazten duen bezala, trenbidearen eremua pasealeku bihurtuko balitz, patio estalia patio-orduak erabiltzera igaroko litzateke, eta gainerako orduetan paseatzen ari diren pertsonek erabili ahal izango lukete. Kainuen Pasealekuan ibaiaren ertzean esertzeko espazio estali bakarra izango zen.

3.2.3. GELTOKIKO HALLA HANDITZEKO PROPOSAMENA.

Zuzendarien aparkalekuak aire zabalean zabaltzeko proposamenekin batera, pandemiaren garaian jendearentzat itxita egon den geltokiko atondoa sartzea proposatzen da. 480m² inguruko espazioa da, eskola ondoan estalita eta babestuta dagoena.

Geltokia etorkizunean erabat birplanteatuko bada ere, kontuan hartu behar dira auzotarrek eta eskolak espazio horretarako dituzten beharrak.

Inbertsio txiki batekin, espazio **zabala eta irisgarria denez, patio estali bat izatera pasa liteke, eta tailerretarako eta beste jarduera batzuetarako erabili.**



Geltokiko hallaren proposamena

4.ONDORIOA.

Kontuan hartuta eskolak espazio eta kalitate aldetik gabezia handiak dituela aire zabalean, eta egunero 500 haur bertaratzen direla, arduradun politikoek, **Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eskola-komunitateak proposatutako espazioen erabilerarekin bat egin beharko lukete.**

Aukera paregabea da, inbertsio ekonomiko txikiarekin, haurren osasun integrala eta bizikidetzaren hobetzeko estrategiaren baitan urrats sendoa emateko.

Ekintza zuzena da, eta ahalbidetzen digu haurren bizi-kalitatea zein hezkuntzaren kalitatean eragitea, eskola-inguruneak hobetuz eta, horrela, 2030 Agendaren 4. helburua garatu: kalitatezko hezkuntza.